

Ordizian, 2015eko otsailaren 26an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Unai Rekondo Perez jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2015eko urtarrilaren 29an udalbatzarrak egindako aparteko bilkuraren zirriborroa onartzea.
- 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- 2015eko Martxoaren 8ko Adierazpen instituzionala.-EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO
- 4.- Udal talde sozialistak aurkeztutako proposamena, "hondakinen tratamenduan krisi ekonomikoa saihesteko" lema duena.
- 5.- "GILTZAGUNE" proiektua burutzeko lankidetzaren hitzarmena.
- 6.- Ordiziako Udalak eta GOIEKI S.A.k 2011ko ekainaren 7an sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea.
- 7.- Koordinazio Soziosanitarioko Protokoloa onartzea.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 20:28ean



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2015eko urtarrilaren 29an udalbatzarrak egindako aparteko bilkuraren zirriborroa onartzea

Proposamena

2015eko urtarrilaren 29an udalbatzarrak egindako aparteko bilkuraren zirriborroa onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Abenduaren 19ko akta onartzen denean, Edurnek alde bozkatu duela jasotzen den tokian abstenitu egin zela jarri behar du,

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea

2015eko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era alkatetzak sinatutako dekretuen berri eman da.



Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- 2015ko Martxoaren 8ko Adierazpen instituzionala.-EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO

Alkate jn

Adierazi du adostasun batera iritsi direla alderdi guztiak, beraz ez da BILDUK aurkeztutakoa bozkatuko.

Asenjo jn

EAJ eta PSE-EE(PSOE)k aurkeztutako idatziaren lehen 2 puntuak Ordiziako Udalari begira ontzat ematen dituztela; batez ere estatuari begira, EAJ eta PSOEek aurkeztutako lehen 5 puntuak eta BILDUren moziotik lehen 2 puntuak mantentzen direla esan du, eta hirugarren puntua kentzen dutela.

Dubreuil jn

Bizi dugun gara honetan inoiz baino beharrezkoagoa dugu halako mozioak onartzea, eta alderdien arteko batasuna erakustea.

PP gobernuan denetik, eta krisiaren aitzakian, berdintasunerako politika guztiak suntsitzen ari da, lan-erreformak egiten ari da, sektore publikoan lanpostuak murrizten ari da, eta ongizate-estatu eta funtsezko zerbitzu publikoak ahultzen, hezkuntza erreformak egiten... Horiek guztiak emakumeen eskubideen aurkako erasoak dira.

Alkate jn

Erabat ados dago Dubreuil jaunak esandakoarekin. Gauza hauetan bat egin behar dugu garai hauetan.

Adostutako mozioren testua, hau da:

1.- Ordiziako udaletik beharrezko aldaketa bultzatuko dugula politikagintzan nagusi den eredu gizonezkoen botere eta lidergoan oinarrituta egon ez dadin, eredu horren biziraupena zaintza arduren banaketa ez ekitatiboari lotuta, eragozpen handia baita emakumeak politikagintzan sartzeko eta alor horretan aurrera pausuak emateko eta, oro har, emakumeek esparru publikoan parte har dezaten.

2.- Ordiziako udalak Gizarte aske eta garatuaren aldeko apustua egingo duela, asmo lortu-ezina baita biztanleriaren erdiak beste erdiaren aukera berberak ez baditu.

3.- Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarri.

4.- Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatu.

Eta Estatuko Gobernuari eskatzen diogu:

1.- berdintasun politikan eta genero indarkeriaren aurkako borrokan murriztu diren baliabideak lehengoratzeari.

2.- Genero indarkeriari aurre egiteko prebentzioa sendotzea eta bereziki gazteen arteko indarkeriari arreta berezia eskaintzea.

3.- Deuseztutako berdintasun politika bereziak eta erakundeak lehengoratzeari eta Lan Erreforma indargabetzeari.

4.- Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasun Legea indargabetzeari.

5.- Gurasoen Erantzukidetasun Aurreproiektua baztertzeari.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Udal talde sozialistak aurkeztutako proposamena, "hondakinen tratamenduan krisi ekonomikoa saihesteko" lema duena.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) bere garaian erabaki zuen Banco Santander, La Caixa eta Price-Waterhouse aholkularitza-bulegoari auzia jartzea Zubietako instalazioa gauzatzeko kredituen estaldura-kontratuengatik. Auzitegiek ezetsi egin dute auzi-eskaera hori, formalizatutako kontratuak egokiak zirela iritzita. Kontratu horiek "espekulatiboak" bihurtu ziren EH Bilduko Foru Gobernuak eta GHK-k hondakinak tratatzeko instalazioa ez eraikitzea erabaki zutenean.

Gure iritziz, teknikarien oharpenak aintzat hartu ez zituen partzuergoaren ausarkeriazko kudeaketak eta GHHKPOren inguruan aurreko legealdian onartutako plangintzaren aurka Bildu koalizioak erakutsitako obsesioak zuzeneko ondorio ekonomikoa ekarriko diete, inolako zalantzarik gabe, Gipuzkoako mankomunitateei eta udalerriei, baita, jakina, Sasieta Mankomunitateari eta Ordiziako udalerriri ere.

GHK-Kontsortzioa osatzen duten mankomunitateek hilero milioi-erditik gora euro inguru ordaindu beharko dute, 68 milioi euro ordaindu bitartean. Diru hori gipuzkoarron poltsikoetatik aterako da, jakina, Bilduk ez eraikitzea erabaki zuen azpiegiturak ordaintzeko.

Zehazki, Ordizia partaide duen Sasieta Mankomunitateak 4 milioi eurotik gora (4.080.000 €) ordaindu beharko ditu. Horrek ondorioak izango ditu, nola ez, Ordiziako herritar guztien poltsikoetan.

Hondakinen Kontsortzioak, eraikiko ez duen azpiegitura batengatik hilero 500.000 euro ordaintzen jarraitzeaz gain, 13,2 milioi euro ordaindu behar izan dizkie beste kontzeptuengatik errauskailua eraiki behar zuten enpresei, proiektua atzera bota izanagatik; izan ere, kalte-ordainengatik ordaindu beharreko 8,2 milioiri beste 5 milioi gehitu behar zaizkie egindako lanengatik (Bilduk lan horiek egiten ari zen enpresarekin hitzartuta). Eta, gainera, 2,8 milioi euro ordaindu ditu egindako lanengatik.

GHK-Kontsortzioa eta Foru Aldundia hartzen ari diren erabakiak ingurumen- eta finantza-hondamendira eramaten ari dira GIPUZKOA. Egoera horretan, eraikiko ez diren azpiegiturengatik kalte-ordainak eta kredituak ordaindu beste irtenbiderik ez dago. Bien bitartean, lurraldeko udalerriek eta mankomunitateek GHHKPO eta 2008-2016 Aurrerapenerako Dokumentuarekiko alternatibarik gabe jarraitzen dute: bi horiek aurreko legealdian Batzar Nagusiek onartutako plangintza osatzen zuten, orain, aldiz, Gipuzkoako hondakinen tratamendu osorako soluzio ekonomikoa eta ingurumenekoa baztertu egin da, *sine die*. Bere

garaian gauza bera gertatu zen energia balioztatzeko azpiegiturarekin, eta orain, berriz, kredituen estaldurarekin.

Horregatik guztiagatik, udal-talde sozialistak osoko bilkurara ekarri du, onartua izan dadin, honako PROPOSAMENA

1.- Udalaren osoko bilkurak GIPUZKOako Batzar Nagusiek gehiengoz onartu zuten GHHKPOn eta 2008-2016 Aurrerapenerako Dokumentuan jasotzen den hondakinen tratamendu osoaren inguruko plangintzarekiko adostasuna adierazten du.

2.-Udaleko osoko bilkurak erabaki du GHKren presidenteari eskatzea Gipuzkoan hondakinen tratamenduaren inguruko egoera birbidera dezala, eta errespetatzea Batzar Nagusietan eta GHKn dauden gehiengoak, Gipuzkoako ingurumenaren arloan bizi duen krisiarekin, ondorio larriak ekarriko dituen finantza-krisiarekin bat egitea saiheste aldera.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jn.

Adierazi du gaia errepikatu egiten dela, baina azken berrien arabera, gaia gero eta kezkarriagoa da.

Gainera, badirudi Sasieta Mankomunitateak 4 milioi euro ordaindu beharko dituela Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHKPO) finantzatu zuten bankuekin izandako auziagatik. Pentsatzen genuen horrek ondorioak ekarriko zizkiela Ordiziari eta mankomunitateari, baita errauskailua gelditzeak zekarren guztiagatik ere; gure datuen arabera, hiler 500.000 € ordaindu beharko dira eraikiko ez den azpiegitura batengatik.

Hainbat erabaki hartu dira, Gipuzkoa kaltetu dutenak. Horregatik, mozio honen xedea da hausnarketa bultzatzea, eta hala moduz jardun beharrean ganoraz jardutea bultzatzea. GHHKPO hortxe dago, aprobetxatzeko.

Santamaria jn.

Esan du mozioaren alde egingo dutela. Kontsentsuz plangintza bat zegoen eta lau urte ondoren ez dugu inongo azpiegiturarik eta ezta horizonte onik ere irtenbide bat lortu ahal izateko.



Asenjo jn

PIGRUgen agertzen da birziklapen tasa %60koa izan beharko lukeela gutxienez, baina ikusten da adibidez Ordizian langa hori gaintitu dela baina EAJ eta PSE-EE(PSOE)k gobernatutako udaletan ez direla portzentaje horietara iristen.

Adierazi du EAJ eta PSE-EE(PSOE)k eraiki nahi zuten errauskailua prest zegoela 270.000.-tona jasotzeko, baina gaur egun 170.000.- tona sortzen dela Gipuzkoan. Beraz, galdetu du 270.000.-tona horietara iristeko ea zein zen irtenbidea. Gehiago ordaindu?

Bizkaia eta Arabatik ekarri zaborra, ala Mallorkan egiten den bezala Irlandatik ekarri? Salatu du galdera horiei oraindik ez zaiela erantzunik eman.

Gainera esan du EAJk berak orain esaten duela errauskailua eraiki behar dela, baina txikiagoa. Beraz esan du EAJ berak aitortzen duela eraiki nahi zuen errauskailua gairaz zegoela.

Gaineratu du besteek aurreikusten zuten gastua 500 milioikoa zela eta BILDUren ereduarekin aldez, PSE-EE(PSOE)ko ordezkariak aipatutako zenbatekoak gehituta ere, 250 milioikoa dela, hau da, gastua erdira murrizten dela.

Adierazi du jadanik ez dela garaia gai honetatik etekin politikoak ateratzeko, eta birziklapen tasa handiak lortzen ari direla, batik bat BILDU gobernatzen ari den udalerrietan eta Europar beraien kudeaketa txalotua izan dela.

Jarraian erdaraz eman ditu azalpenak.

Santamaria jn

Hartu du hitza eta esan du Ordizian PIGRUG-ek ezarritako bilketa selektiboak tasak gaintitu dituela Ordizian eta baita Legazpin, Zegaman eta Olaberrian ere.

Esan du horiek lortzeko bide ezberdinak daudela, eta beraiek kontzientziarioaren alde egiten dutela eta 5. kontenedorearekin, eta Ordizian helburu horiek ere lor daitezkeela.

Baita ere esan du bilketarekin amaitzeko Arrasaten sistema aldatuko dela eta 5.kontenedorea jarriko dela.

Azpiegiturei dagokionez, esan du ez dela datu eta portzentajetan sartuko, baina pozten dela errauskailuaren kontra erabiltzen den argudio bakarra orain ekonomikoa dela ikustean.

Hala ere esan du ez dagoela gaur egun inongo azpiegitararik hondakinen arazoari erantzuna ematen dionik.



Dubreuil jn

Esan du errauskailuak zikloa amaitzen zuela, baina zabortegiek ez dutela ezer amaitzen eta ez dakiela zenbat zabortegi egin beharko den.

Alkate jn

Esan du harritzen dela norbait kezkatzeaz kalteordain kontzeptuan ordaindu behar den kopuruari buruz baina ez aurrezten den milioi kopuruaz.

Horrekin batera esan nahi du honen guztiaren atzetik denok dakigula zein komunikabide dagoen eta horren atzetik badakigula zein enpresa eta pertsona dagoen eta interesak nortzuek dituzten.

Esan du bestalde Bizkaian hondakinen kudeaketa kaxkarrari ez zaiola komunikabide horietan oihartzunik ematen.

Gaineratu du sentsibilizazio askorik ez duela ikusi gai honekin eta denok erratu direla eta bakoitzak bere akatsak onartu beharko lituzkeela.

Hala ere, esan du, hartutako erabakiekin ez dela damutzen eta datuek hori berresten dutela.

Dubreuil jn

Erantzun du hondakinen kudeaketak bere biderei jarraitzen ziola, arian-arian eta hobetuz, herritarrak asaldatu gabe, jendearen ohiturak kaltetu gabe eta arazorik eman gabe.

Esan du, sistema hori alde zuzenetik azterlanik gabe hartu zela, eta Sasieta azterlana erabakia hartuz geroztikoa izan zela.

Gainera, azterlan batean aipatu zen egoerarik okerrenera litzatekeela mankomunitateko udalerriek bakoitzak bere sistema ezartzea, eta horrela iritsi gara egoerarik okerrenera.

Esan du bosgarren edukiontzia alde egin izan balitz, 2016ra %60ko tasarekin hel gintezkeela.

Gehitu du horrela ez dela zikloa isten, eta ez dagoela behin betiko irtenbiderik.

Asenjo jn.

Esan du 5.kontenedorearekin portzentaje horietara iritsiko balitz jadanik frogatuta egongo litzatekeela. Gaineratu du PSE-EE(PSOE) eta EAJ gobernatzeko ari diren herrietan lortutako portzentaiak askoz baxuagoak direla. Baita ere esan du EAJ Bizkaian gobernatzeko ari dela aspalditik, baina datuak hor daudela eta gainera toki askotan oraindik ere ez dutela 5.kontenedorea jarri. Beraiek aldiz, oso denbora gutxian oso datu onak lortu dituztela.



Esan du BILDU dagoen udalerrietan herria azterturik sistema erabakitzen dela, ez dutela atez atekoa bai edo bai inplantatzen. Besteak aldiz, bakarrik 5.kontenedorearen aukera ikusten dutela esan du.

Galdetu dio ea errauskailuarekin sistema edo zikloa ixten bada zergatik Bizkaian 3 zabortege dituzten.

Gainera esan du badaudela zenbait hondakin toxiko irtenbide eta tratamendu berezi bat eman behar zaienak.

Santamaria jn

Hainbat udaletan beste sistema desberdin batzuk jarri direla esan du eta emaitza onak lortu direla, beraz ez daudela bakarrik sistema batera itxita. Esan du ez duela berak BILDUren inongo autokritikarik entzun.

Alkate jn

Esan du denok egin ditugula gauzak gaizki eta ez dutela inongo arazorik akatsak onartzeko. EAJren aldetik aldiz, hori ez duela inoiz entzun adierazi du.

Santamaria jn

PIGRUGa onartu zen gehiengoz eta arazoa konponduta zegoen.

Alkate jn

Ados ez dagoela adierazi du. Ez zegoen konponduta.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena ez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- "Giltzagune" proiektua burutzeko lankidetzaren hitzarmena.

Proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udaletxearen artean egin den hitzarmen zirraborra.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udal honek sinatu beharreko hitzarmen-zirraborren berri eman da, "Giltzagune" deitutakoa, proiektu pilotua, osasun larrialdi zerbitzuetakoei eta suhiltzaileei udalerriko zenbait tokitara sartzeko erraztasunak emateko, giltza edo mandoen bidez aktibatzen diren oztopo edo piboteek itxitako tokietatik igarotzeko.

2015.03.10eko otsailaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko aldeko irizpenarekin.

AKORDIO PROIEKTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udal honek sinatuko duten hitzarmena onartzea, "Giltzagune" deitutakoa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Azalpenak eman ditu. Azaldu du hainbat tokitara larrialdi zerbitzuak ailegatu ahal izateko erraztasunak emateko asmoa dela.

Berak esan du eskatzen zitzaizkigun gauza asko jadanik betetzen zituela udalak.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Ordiziako Udalak eta Goieki S.A.k 2011ko ekainaren 7an sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea.

Proposamena

2011ko ekainaren 7an Udalak eta Goierriko Ekimena SAK hitzarmena sinatu zuten azalera eskubidea uzteko Oiangualde 30 HIEko b.20.1. partzelaren P2 azpipartzela erosteko aukerarekin.

Lurzoruaren Udal Ondarearen osagai den partzela hau zuzenean esleitu zitzaion GOIEKI S.A.ri hirigintza legedian oinarrituta; Goierri eta bere udalerrien sustapenerako zentroa ipintzeko bakarrik, edota enpresa, turismo, negozio, ikerketa edo ikastaroak sustatzeko bertan.

Hitzarmenak erosteko eskubidea eskaintzen duela ikusita, GOIEKI S.A.k epe barruan jakinarazi dio Udalari eskubide horretaz baliatzeko eta aipatutako partzelaren jabe izateko nahia.

2014ko irailaren 25eko osoko bilkuraren akordioan oinarrituta, Udalak Goieki S.A.ren erosketa-eskaera onartzea erabaki du. Horrez gain, Udaleko kontuhartzailearen eta arkitektoaren aldeko txostenekin, hitzarmenean finkatutako salneurria aldatzeko eskaera onartu zaio, erosketa gauzatu nahi duen unean egindako aditu-tasazioan justifikatuta. Horrekin batera, Udalak hitzarmena aldatzeko beharrezkoak diren izapideak bideratzeko konpromisoa hartzen du.

Hitzarmena aldatzea beharrezkoa da bertako klausulak ere aldatu egin direlako honako hauei dagokienean: salerosketaren prezioa, eraikina egiteko eta jarduera martxan ipintzeko epeak. Baina beste alde batetik, hitzarmenaren xede den ondarearen izaera juridikoa ere aldatu da, eta azalera eskubide izatetik Goieki S.A.ren jabetzako partzela izatera pasako da.

Horregatik guztiagatik GOIEKI S.A.rekin sinatu zen hitzarmena aldatzea komeni da, partzelaren salerosketarako baldintzak eta ondarearen izaera juridiko berrietatik eratorritako arauak arautzeko.

2015eko otsailaren 18ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENA.- Ordiziako Udalak eta GOIEKI S.A.k 2011ko ekainaren 7an sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea, Oiangualde 30- HIEren b.20.1 lursailaren b.20b1 partzelaren P2 azpipartzelari dagokionean, akordio honen Eranskineko baldintzetan oinarrituta.



BIGARRENA.- Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako aldaketa egiteko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Idazkari jn

Azaldu du Goiekik adierazi diola Udalari hitzarmeneko 6. Aurrekarian hainbat gauza zuzendu behar direla, errealitateari ez delako egokitzen.

Bidali den proposemeneko 6.aurrekarian, segidan dion honako hau dioen tokian:

“SEIGARRENA: Goieki S.A., hobeto esanda Goierri Fundazioa, Estatuaren 2011ko Aurrekontu Orokorretako diru-laguntza nominatibo baten onuradun izan da, eta diru-laguntza hori Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (MICINN) eman zuen, milioi bat eurokoa izanik, Oinarri Teknologikoko Enpresen Inkubategi bat eraikitzeko. Hala ere, zehaztutako diru-laguntza kendu egin zaio Fundazioari. Fundazioak errekurtsio bat ipini zuen Auzitegi Nazionalean; eta honek errekurtsioa osorik onartu zuen eta ebatzi zuen Fundazioari diru-laguntza bere legezko interesekin ordaindu behar zitzaioela.

Nolanahi ere, Estatuko Abokatutza epaiari helegitea jarri dio kasazioan Auzitegi Gorenaren aurrean. Une honetan, auzitegiak helegitea onartuko duen ala ez zain dago.

Epaia emateko epea 4 urtetik 5era bitartekoa izan daiteke.

~~Bestalde, Goieki S.A. elkarrekin Goierri Oinarri Teknologikoko Enpresen Inkubategi proiektua garatzeko Finantzen Euskal Institutuak emandako kreditu hobaridun baten onuraduna da. Kredituaren zenbatekoa inbertsioaren araberakoa izando da; gehienez ere, 3.038.000eurokoa.~~

~~Horregatik, Estatuko Administrazio Orokorren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren diru-laguntza merezi izan duen jardueraren bideragarritasunaren defentsan, Goieki SAK eta Goierri Fundazioak hitzarmen bat sinatzea adostu dute, Diru-laguntzei buruzko Legea eta horren araubidea bereziki errespetatuta, proiektua modu bateratuan gauzatzea ahalbidetze aldera.~~

Aipatu hitzarmenaren bidez, Goierri Fundazioak enpresen inkubategia jasoko duen eraikina altxatzeko kostuetan lagunduko du ekonomikoki eta eskusiboki, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak emango duen kopurua muga hartuta.

Goierri fundazioa interesaturik dago aipatu eraikineko beheko solairuan bi lokal eskuratzeko, bertan oinarri teknologikoko enpresen inkubategi bat instalatzeko.



Honela jasota geratzen da:

SEIGARRENA.- Goieki S.A., hobeto esanda Goierri Fundazioa, Estatuaren 2011ko Aurrekontu Orokorretako diru-laguntza nominatibo baten onuradun izan da, eta diru-laguntza hori Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (MICINN) eman zuen, milioi bat eurokoa izanik, Oinarri Teknologikoko Enpresen Inkubategi bat eraikitzeko. Hala ere, zehaztutako diru-laguntza kendu egin zaio Fundazioari. Fundazioak errekurtsio bat ipini zuen Auzitegi Nazionallean; eta honek errekurtsioa osorik onartu zuen eta ebatzi zuen Fundazioari diru-laguntza bere legezko interesekin ordaindu behar zitzaiola.

Nolanahi ere, Estatuko Abokatutza epaiari helegitea jarri dio kasazioan Auzitegi Gorenaren aurrean. Une honetan, auzitegiak helegitea onartuko duen ala ez zain dago.

Epaia emateko epea 4 urtetik 5era bitartekoa izan daiteke.

Horregatik, Estatuko Administrazio Orokorren diru-laguntza merezi izan duen jardueraren bideragarritasunaren defentsan, Goieki SAK eta Goierri Fundazioak hitzarmen bat sinatzea adostu dute, Diru-laguntzei buruzko Legea eta horren araubidea bereziki errespetatuta, proiektua modu bateratuan gauzatzea ahalbidetze aldera.

Aipatu hitzarmenaren bidez, Goierri Fundazioak enpresen inkubategia jasoko duen eraikina altxatzeko kostuetan lagunduko du ekonomikoki eta eskusiboki, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak emango duen kopurua muga hartuta.

Goierri fundazioa interesaturik dago aipatu eraikineko beheko solairuan bi lokal eskuratzeko, bertan oinarri teknologikoko enpresen inkubategi bat instalatzeko.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena, aipatutako zuzenketa egin eta gero, bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Koordinazio Soziosanitarioko Protokoloa onartzea.

Proposamena

Osasun edo/eta segurtasun arazoak dituzten edo izan ditzazketen pertsonen harretan parte hartzen duten eragile ezberdinen koordinazio beharra dela eta,

Horretarako, erakunde ezberdinak, bi sistemetako profesional batzuen artean dagoeneko ematen diren komunikazio eta kolaborazio egokiak finkatu eta zabaltzeko konpromezua hartu dute, osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazio arauak ezarriz:

- Goierri – Urola Garaiko ESla (lehen mailako atentzioko unitateak eta Zumarragako ospitalea)
- Beasain, Zumarraga eta Azpeitiko osasun mentaleko Zentroak.
- Donostia Unibertsitate ospitalea (ospitale tertziarioa)
- Udalen gizarte zerbitzuak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako departamentua.

Guzti honegatik, udalerrian Osakidetza eta udaleko gizarte zerbitzuek osatutako koordinazio soziosanitariorako komisio baten osaketa proposatzen da, somatutako behar edo arazoen detekzio goiztiar eta erantzun azkar eta eraginkorra lortzeko, eragile guztien eskuhartze egokiena izateko helburuarekin.

2015/01/14ko Gizarte Ongizateko delegazioko aldeko onarpenarekin

Plenorako ondorengo AKORDIO PROIEKTUA onartzea proposatzen da:

- ORDIZIA-ko udalerrirako koordinazio soziosanitariorako protokoloaren sinadura onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza and.

Azalpenak eman ditu protokoloaren edukiaren inguruan.

Bozketa



Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena, aipatutako zuzenketa egin eta gero, bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Galde-erreguak

Santamaria jaunak esan du testu bat prestatu dutela EAJ eta PSE-EE(PSOE)ren artean hondakinen inguruan. Galdetu du ea mozio gisa aurkeztu daitekeen.

Jarraian galderak irakurri ditu.

"Bozeramaile hauek hainbatetan eskatu dute Ordiziako Udalak hondakinak jasotzeko bultzatu duen sistemak izan duen, izaten ari den eta izango duen kostuari buruzko informazioa. Gaur gaurkoz, Bilduk ez du gaiari buruzko erantzunik eman. Ordiziarrok, atez ateko bilketa-sistema ezarri zenetik bi urtetik gora igaro direnean, ez dakigu zer ondorio ekarri dituen, dakartzan eta zer ekarriko dituen Bilduk bortxaz ezarritako eta ordiziarren borondatearen aurka doan sistema horrek.

Bozeramaileok hainbatetan eskatu dugu udal honetako ordezkariak Sasieta Mankomunitatean agertzea batzorde monografikoan, egindako kudeaketaren berri eman zezaten mankomunitatean bertan, eta, halaber, duela hainbat urtetatik eskatzen ari garen informazioa eman zezaten. Orain arte kasurik ez. Fitsik ez.

Bildu, gure iritziz, inposatutako hondakin-bilketarako sistemari eta zaborteziaren egoerari buruzko informazioa oztopatzen ari da.

Eta horrela, zalantzarik, ziurgabetasunetik, segurtasunetik ezaz, susmoz eta kezkarik beterik iritsi gara gaur egunera arte. Horiek guztiak istorio sinestezin honen hasieratik beretik eduki ditugu, baina areagotu egin dira azken hilabeteotan ezagutu ditugun berrien ondorioz.

Jakingo duzuenez, auzitegiek Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) Banco Santander, La Caixa eta Price-Waterhouse aholkularitza-bulegoari Zubietako instalazioa gauzatzeko kredituen estaldura-kontratuengatik jarritako auzia ezetsi dute. Auzitegiek ezetsi egin dute auzi-eskaera hori formalizatutako kontratuak egokiak zirela iritzita. Kontratu horiek "espekulatiboak" bihurtu ziren EH Bilduko Foru Gobernuak eta GHK-k hondakinak tratatzeko instalazioa ez eraikitzea erabaki zutenean.

Horrek, gure iritziz, zuzeneko ondorioak ekarriko dizkie, inolako zalantzarik gabe, Gipuzkoako mankomunitateei eta udalerriei. Baita, jakina, Sasieta Mankomunitateari eta Ordiziako udalerrinari ere.

GHK-Kontsortzioa osatzen duten mankomunitateek hilerio milioi-erditik gora euro inguru ordaindu beharko dute 68 milioi euro ordaindu bitartean. Diru hori gipuzkoarron poltsikoetatik aterako da, jakina, Bilduk ez eraikitzea erabaki zuen azpiegiturak ordaintzeko.

Zehazki, Ordizia partaide duen Sasieta Mankomunitateak 4 milioi eurotik gora (4.080.000 €) ordaindu beharko ditu. Horrek ondorioak izango ditu, nola ez, Ordiziako herritar guztien poltsikoetan.

Orain arte, ez Sasieta ditugun ordezkariak, ez gure udal-gobernuak (Bilduk, alegia), ez dute hitzik esan.

Gogaiturik gaude isilarekin. Gogaiturik gaude informazioa ezkutatzearekin. Gogaiturik gaude gutxiesten gaituztelako. Gogaiturik gaude oposizioko alderdiekiko eta, oro har, herritarrekiko errespetu faltagatik. Gogaituta gaude. Eta jakin nahi dugu, behin betikoz, nola eragingo diguten hartutako erabakiek.

Egoera ilun, kaotiko eta kezagarri horrek gure iritziz premiaz argitzea eskatzen du. Bai kontuak argi ematea eskatzen duten herritarrei dagokienean, baita oposizio honi dagokionean ere.

Horregatik guztiagatik, bozeramaileok udal-gobernari, alkateari edo Sasieta Mankomunitatean dauden ordezkariak eskatzen diegu erantzun diezaietela MOZIO honen bitartez galdera hauei:

1. Mankomunitateak ordaindu beharko al ditugu 4.000.000 euro Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) Banco Santander, La Caixa eta Price-Waterhouse aholkularitza-bulegoari jarritako auzia ezetsi izanagatik?
2. Hala bada, Sasieta ordaindu beharko dituen 4.000.000 eurotik gorako zenbateko horretatik zenbat dagokio Ordiziarri? Nola ordainduko dugu zenbateko hori?
3. Gure "atez ate" sistemari dagokionez, esango al diguzue, behingoz, zenbat kostatu den, ari den eta kostako den, eta kostu horrek epe motzera aurrekontua areagotzea ekarriko duen? Jakina, hala bada, aurrekontuak zenbatekoa izan beharko du atez atekoaren kostu errealari aurre egiteko?
4. Sasieta zabortegeari dagokionez, jakin nahi dugu zergatik ez ziren bere garaian hartu Eusko Jaurlaritzak eskatutako neurri zuzentzaileak, eta zergatik ez den zabortegea modu eraginkorrean kudeatu.
5. Jakin nahi dugu, halaber, zergatik erabaki zenuten zabortegea ixtea eta aldi berean, paraleloki, Sasieta sei hilabetez irekitzeko plan bat diseinatzea, inolako txosten juridikorik gabe eta Sasieta teknikarien iritzia kontuan hartu gabe. Horren kostua 2.500.000 euro izango da, eta jakin nahi dugu nondik aterako

den diru hori. Herritarrek ordaintzen dituzten tasetatik? Zenbateko kostua izango du herritar bakoitzarentzat?

- 6. Jakin nahi dugu Sasieta ixteak ondoriorik ekarriko ote dion gure hondakinak kudeatzeko sistemari, edo Ordiziako aurrekontuari, edo herritarrek hondakinengatik ordaintzen duten tasari.*
- 7. Jakin nahi dugu nola liteke Sasieta sei hilabetera irekitzea, Sasietako teknikariek esandakoaren arabera gauzatu asmo diren neurriak bideraezinak badira, eta, hortaz, Eusko Jaurlaritzak (plana gorabehera) irekitzeko baimenik ematen ez badu. Bi milioi eta erdi zaborretara bota ondoren, jakin nahi dugu zeri egin beharko diogun aurre.*

Gure iritziz, bai guk, bai, oro har, ordiziarrek guztiei eragiten diguten kontu horiei guztiei buruzko argibideak behar ditugu."

Estos portavoces han requerido en diversas ocasiones se les informe acerca del coste que ha supuesto, está suponiendo y supondrá el cambio de sistema de recogida de residuos que ha impulsado su gobierno en Ordizia. Hoy es el día que Bildu todavía no ha contestado a estas cuestiones. Los ordiziaras, más de dos años después de haberse implantado el PaP, no sabemos lo que ha supuesto, está suponiendo y supondrá esta imposición autoritaria y contraria a la voluntad de l@s ordiziaras por parte de Bildu.

Estos portavoces han solicitado en varias ocasiones también, la comparecencia de los representantes de este Ayuntamiento en Sasieta en comisión monográfica para que dieran cuenta de su gestión en la Mancomunidad, y pudieran ofrecernos la información que desde hace años llevamos demandando. Hasta ahora ni caso. Nada de nada.

Bildu a nuestro parecer, está obstaculizando el acceso a la información sobre el sistema de recogida de residuos impuesto, y sobre la situación del vertedero.

Y así llegamos a estos días con las mismas dudas, incertidumbres, inseguridades, sospechas, y preocupación que hemos tenido desde el inicio de esta rocambolesca historia, acrecentadas más si cabe por las noticias que hemos podido conocer en los últimos meses.

Cómo saben, los tribunales han desestimado la demanda del Consorcio de Residuos de Guipúzcoa-GHK, al Banco Santander, a La Caixa y a la consultora Price-Waterhouse, por los contratos de cobertura de los créditos para ejecutar la planta de Zubieta. Los tribunales han desestimado esta demanda al entender que los contratos formalizados eran idóneos y se convirtieron en "especulativos" cuando el Gobierno Foral de EH Bildu y GHK, decidieron no construir la planta de tratamiento de residuos.

Esto entendemos, que tendrá sin duda alguna consecuencia económica directa en las mancomunidades y los municipios de Guipúzcoa. Y por supuesto en nuestra Mancomunidad de Sasieta y en Ordizia.

La diferentes mancomunidades que conforman el Consorcio-GHK deberán abonar en torno a más de medio millón de euros mensuales, hasta un total de 68 millones euros, que saldrá de los bolsillos de los guipuzcoanos y guipuzcoanas, y de los ordiziaras por supuesto, que deberán pagar por unas infraestructuras que Bildu ha decidido no construir.



En concreto la Mancomunidad de Sasieta, de la que forma parte Ordizia, deberá abonar más de 4 millones de euros (4.080.000€). Y esto repercutirá, no puede ser de otro modo, en los bolsillos de toda la ciudadanía ordiziarra.

Hasta ahora, ni nuestros representantes en Sasieta ni nuestro gobierno municipal, es decir, Bildu, han abierto la boca al respecto.

Estamos hartos de tanto silencio. Estamos hartos de tanta ocultación de información. Estamos hartos de tanto ninguneo. Estamos hartos de tanta falta de respeto a los partidos de la oposición, y a la ciudadanía en general. Estamos hartos. Y queremos saber de una vez por todas, cómo nos afectan sus decisiones

Esta oscura, caótica y preocupante situación requiere a nuestro entender una urgente clarificación. Tanto de cara a la ciudadanía que sin duda quiere las cosas claras, como de cara a esta oposición.

Por todo ello, estos portavoces solicitan mediante esta MOCIÓN al gobierno municipal, alcalde o representantes municipales en la Mancomunidad de Sasieta en esta sesión plenaria, se responda a las siguientes preguntas:

1. ¿Vamos a tener que pagar desde la Mancomunidad más de 4.000.000 de euros, por la sentencia desestimatoria de la demanda del Consorcio de Residuos de Guipúzcoa-GHK, al Banco Santander, a La Caixa y a la consultora Price-Waterhouse?
2. En caso afirmativo, ¿de estos más de 4.000.000 de euros que Sasieta deberá pagar, cuánto corresponde a Ordizia? ¿Cómo los vamos a pagar?
3. Con respecto a nuestro "puerta a puerta", ¿nos pueden decir, de una vez por todas, cuánto ha costado, cuesta y costará el "puerta a puerta" y si este coste supondrá a corto plazo un aumento presupuestario, y obviamente, de ser así, cuánto habremos de presupuestar para hacer frente a su coste real?
4. Con respecto a nuestro vertedero de Sasieta, nos gustaría saber las razones por las que no se adoptaron en su momento las medidas correctoras que se exigían por parte del Gobierno Vasco y no se ha realizado una gestión eficaz del vertedero.
5. Queremos saber también por qué a la vez que resolvían cerrar el vertedero, decidían paralelamente diseñar un plan, sin informe jurídico, al margen de los técnicos de Sasieta, para reabrir Sasieta en seis meses con un coste de 2.500.000 euros que nos preguntamos de dónde saldrán. ¿De la tasa de los ciudadanos? ¿Cuánto supondrá para cada ciudadano?
6. Queremos saber si el cierre repercutirá o no en el coste de nuestro sistema de gestión de residuos, o en los presupuestos de Ordizia o en la tasa municipal de basura de nuestros ciudadanos.
7. Queremos saber cómo es posible que se reabra seis meses después cuando los técnicos de Sasieta aseguran que las medidas que se prevén realizar no son viables y por lo tanto, si el Gobierno vasco, a pesar de plan, no da los permisos de apertura, queremos conocer a qué nos enfrentamos, tras haber tirado a la basura 2,5 millones de euros.



Creemos que tanto nosotros como la ciudadanía ordiziarra en general bien merecemos ver clarificadas todas estas cuestiones que en definitiva nos afectan de forma directa.

Idazkari jaunak hitza eskatu du eta adierazi du testuaren edukiaren arabera bere ustez galderak direla eta ez mozio bat akordio proposamen bat ez duelako gainera.

Alkate jaunak adierazi du gaur ez dietela galdera horiei erantzungo, gainera datu horiek guztiak ez dituztelako momentu honetan.

Dubreuil jaunak esan du datu horiek eduki beharko lituzketela.

Asenjo jaunak erantzun dio hori ez dela mozio bat, galderak direla.

Dubreuil jaunak esan du "mozio batek udal-gobernuari eska diezaioke edozeri buruz erantzutea eta edozeri buruzko kontuak ematea".

Oraindik ez dugu galdera horien inguruko erantzunik jaso. Interesgarria litzateke Sasetako ordezkariekin batzartu ahal izatea, informazio hobea lortzeko.

Alkate jaunak esan dio, "hori edozein unetan egin dezakegu".

Dubreuil jaunak esan du askotan eskatu duela, baina ez dela egin.

.....

Alkate jaunak esan du: galde-erantzunetan gauza bat aipatu nahi dugu.

Idatzi bat prestatu dugu Udal honetako taldeei eskatuz erantzun bateratu bat emateko.

Errekerimendu bat jaso da Epaitegitik bandera espainola jartzea eskatuz, isunak eta prozedura penalean hasi daitezkeela ohartaraziz. Abokatuarekin hitz egin dela esan du eta aipatu duela jarri beste irtenbiderik ez dagoela.

Honako hau da idatziaren testua:



"BILDU UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA ORDIZIAKO UDALBATZARRARI

2015eko otsailaren 6ko Donostiako Kontentzioso-Administratiboko 3º Epaitegiaren Probidentzia jaso delarik, zeinetan Ordiziako Udalari eskatzen zaion 2012ko abenduaren 10eko 253/2012 epaia betetzeko. Epai honek Udala Udaletxeko barnealdean eta kanpoaldean espainiako bandera jartzera behartzen zuen. Honako honen bitartez Udal honetako talde politikoak deitzen ditugu ahalegin bateratu bat egitera, martxoko ohiko batzarrean erantzun bateratu bat eman dakion Ordiziako Udaleko udal gobernua Udaletxean bandera espainiarra jartzera behartu duen inposaketaren kontra, hori guztia, Udalbatza honek ordezkatzeko dituen Ordiziako herritarren gehiengoaren borondatearen kontra, herri honetako errealitatearen ezagutzarik gabe eta inposaketa erabiliz.

Ordizian, 2015eko otsailaren 26an"

Banderak jarri direla esan du eta martxoko plenorako gaia aztertzeko eskatu die udalkideei, ahal bada erantzun bateratua emateko Pleno horretan



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

